



berriak

OSAKIDETZA

2016/10/06

PREKARIETATEAREN KONTRAKO ASANBLADA

Administrazioko behin-behinekotasunari mugak ezartzen dizkieten epaiek hainbat zalantza sortu dute. Zer egin behar dut? ELAk asanbladak deitu ditu egoera ezberdinak argitzeko eta hemendik aurrerako urratsak eztabaidatzeko.

30 hilabete daramatzat lanean eta kontratu ezberdinak izan ditut bata bestearen atzetik, batzuetan ordezkapenak eta besteetan ebentualitateak. Nire lanpostua finkatzeko eskubidea dut? Nola?

Bi urte daramatzat kontratu ebentualak kateatzen y kontratua bukatutzat eman didate. Zer eska dezaket?

Interinitate bat betetzen izan naiz azken 4 urteetan eta ez-ohiko lekualdatze lehiaketan nire lanpostua bete dute. Kalteordaina jasotzeko eskubidea dut?

Galdera hauek guztiak, eta beste hainbat, pilatzen ari zaizkigu eta, ondorioz, ELAk egoera azaltzeko eta eman beharreko urratsak erabakitzeko asanbladak deitu ditu.

Asanbladak 14:00etan eta 15:00etan izango dira lantoki guztietan.

DATAK

- Donostia Ospitalea: urriak 11.
- Txagorritxu: urriak 13.
- Basurtu: urriak 14.
- Galdakao Ospitalea: urriak 18.
- Gurutzeta Ospitalea: urriak 19.
- Gernika Ospitalea: urriak 20.

Zure lantokian beste asanbladaren bat egiteko interesa baldin baduzu, jarri harremanetan zure delegatuarekin eta antolatuko dugu.

**PREKARIETATEAREKIN
AMAITUKO DUGU!!**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA